

**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, BUSTURIA  
KIROL TALDEAK BIZKAIKO FUTBOL FEDERAKUNDEAREN ESKOLA  
FUTBOLEKO KIROL LEHIAKETARAKO ETA DIZIPLINARAKO LURRALDE  
BATZORDEAK 2016KO URTARRILAREN 19AN HARTUTAKO  
ERABAKIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOA EZESTEN  
DUENA.**

---

**Espediente-zenbakia: 2/2016**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2016ko urtarrilaren 29an Busturia Kirol Taldearen idatzi bat jaso zen Kirol Justiziako Euskal Batzordearen idazkaritzan. Idatzi haren bidez, errekurtsoa aurkeztu zuen Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 19an emandako ebazpenaren kontra. Ebazpen horren bitartez erabaki zen *"partida Busturia B taldearentzat galdutzat ematea, 1-0 emaitzarekin, eta sailkapenean puntu bat kentzea [REDACTED] eta [REDACTED] jokalariai zerrendan behar ez bezala sartu izanagatik, ez baitzuten eskolako kirolean parte hartzeko besteko adina (14.g) artikulua, 17.1J) artikuluari erreferentzia egiten diona)".*

**Bigarrena.**- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidera onartzea eta Bizkaiko Futbol Federakundeari espediente eskatzea erabaki zuen. Horrez gain, alegazioak izapidetzeko eta kasua balitz, froga-eginbide egokiak aurkezteko aukera eman zion.

Era berean, idatziaren berri eman zitzaion "Bizkaia Ikastetxea" Hezkuntza Kooperatiba Elkarteari, alegazio egokiak aurkez zitzan, eta ez du inongo adierazpenik egin.

**Hirugarrena**.- 2016ko otsailaren 22an jaso ziren Bizkaiko Futbol Federakundeak bidalitako espedientea eta haren Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Batzordeak egindako txostena.

## **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena**.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskola Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan xedatzen duena; izan ere, artikuluko horren arabera, honako hauei dagokie kirol arloko diziiplina-ahala erabiltzea, zeinek bere eskumen-esparruan: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari. Horixe errepikatzen da uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuan, eskola-kiroleko lehiaketen diziplinazko araubideari buruzkoan, 4.1 artikuluan.

**Bigarrena**.- 2016ko urtarrilaren 16an Bizkaia ikastetxea Benjamin C eta Busturia Kirol Taldea B taldeek lehenaren kirol instalazioetan jokatu behar zuten partidaren gertatu ziren errekurtsioa eragin duten egitateak. Futbol-7 Benjaminen B Ligako 19. taldearen seigarren denboraldiko partida zen.

Jokozainak egindako aktan dioenaren arabera, *"ordezkari bisitariak esan dit benjaminak baino gazteagoak diren bi jokalarik jokatuko dutela, ez daukatela fitxarik baina federazioak baimenduta daudela. [REDACTED] eta [REDACTED] dira haien izenak".*

Hori dela eta, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016ko urtarrilaren 19an emandako ebazpenean erabaki zuen *"partida Busturia B taldearentzat galdutzat*

ematea, 1-0 emaitzarekin, eta sailkapenean puntu bat kentzea [REDACTED] eta [REDACTED] jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu izanagatik, ez baitzuten eskolako kirolean parte hartzeko besteko adina - 14.g) artikulua, 17.1J) artikuluari erreferentzia egiten diona- (adierazitako manuak uztalaren 23ko 391/2013 Dekretuan bildutakoak dira, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoan).

Aurkeztutako errekurtsioan, honako azalpenak eman ditu Busturia Kirol Taldeak, modu laburrean:

1. Benjaminetako [REDACTED] jokalaria ez da existitzen.
2. Lehiakideek eta jokozainek partida guztietan onartzen dituzte aktan aipatzen diren bi jokalaria eta ez dugu ulertzen zergatik egin den ikuskapen hau liga aurreratuan eta zergatik utzi den taldea jokari nahikorik gabe.
3. 1.500 biztanletik beherako udalerriek zailtasunak izaten dituzte taldeak eratzeko.
4. Busturia Kirol Taldeak oinarri-futbola sustatu nahi du eta ez du gazte bakar bat ere kirol horretatik kanpo utzi nahi.
5. 2015ean liga hasi zenean, inork ez zuen errekurtsorik aurkeztu 2008an jaiotako jokalaria izatearen kontra eta horiek benjaminak baino gazteagoak ziren. Aurten, 2016an, jokari horiek benjaminetara pasatuko dira eta taldea zigortu dute.
6. Haien ustez, abantailaren bat lortzeko asmoz goragoko mailako jokalaria eta beheragoko mailako jokalaria zerrendan sartzea izango litzateke liga faltsutzea, baina kasu honetan kirolaren esparruan integrazioa eta solidaritatea bultzatzea baino ez dute nahi.
7. Bi jokalarien gurasoek emandako baimena eta Busturia Kirol Taldeak emandakoa gehitu dizkiote errekurtsioari.
8. Bizkaia ikastetxea benjamin C lehiakidearen arduradunek ez diete trabarik jarri zerrendari eta jokaturako partidaren emaitzari eta Busturia Kirol Taldearen alde argudiatzeko prest daude.
9. Zerrenda zuzena ez bazen, jokozainak partida galarazi beharko zukeen.

Hori guztia dela bide, Bizkaia ikastetxea benjamin C eta Busturia Kirol Taldea benjamin B taldeen arteko partida Busturia "b" taldearen alde irabazitzat emateko eskatu dute, 2-4 emaitzarekin, eta ondorioz, sailkapenean hiru puntu gehitzea eta kendu zaien puntu berreskuratzea. Batzordeak oraindik ere zerrenda desegokia dela pentsatzen badu, puntu bat ez kentzeko eskatu dute (partida galdutzat emateaz gain).

Horrez gain, forman hainbat akats daudela uste dute eta beraz, partida eta zerrenda baliozkotzat jo behar direla:

- a) [REDACTED] jokalaria ez da existitzen (jokozainaren akatsa).
- b) Jokozain jaunaren akatsa ere dago, zerrenda ahalbidetu eta baliozkotzat jo zuelako.
- c) Alderdietako batek ere ez du partiduaren kontrako errekurtsioa aurkeztu.

**Hirugarrena**.- Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak errekurtsio-egileak aurkeztutako alegazioen inguruko zenbait kontsiderazio egiten ditu bidalitako txostenean:

*"(...) Lehiaketarako Batzordearen betebeharra da aurkezten zaizkion erreklamazio guztiei erantzutea eta lehiaketa zuzentzen duten arauak behar bezala aplikatzen direla bermatzea.*

*Kasu honetan, froga guztiak aztertu ondoren, horien balorazioa eginda eta deskribatutako egitateak aztertuta, jokozainak Busturia Kirol Taldeko bi jokalarik fitxarik ez zeukatela eta partida jokatzen ari zirela adierazi zuela ikus dezakegu. Hori oinarri hartuta, federazioak baimenduta daudela jakinarazi zuen Busturia Kirol Taldearen ordezkariak.*

*Eskolako kirolari buruzko araudia argia da eta honako hau dio:*

*Partida bakoitza hasi baino lehen, talde guztiek parte hartuko duten jokolari guztien, entrenatzaileen eta ordezkarien fitxa aurkeztu beharko diote jokozainari, eta jokolarien inskripzioaren triptikoa aurkeztu beharko dute bai "E",*

"A" Ligetarako eta areto-futbolera eta bai "B" Ligetarako. Bizkaiko Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak **DERRIGORREZ** fitxa guztiak behar bezala ziurtatuta egon beharko diren data jakinarazi arte bakarrik balioko du triptiko horrek, hau da, argazkia izan beharko dute eta Kirol Zerbitzuak sinatuta eta zigilatuta egon beharko dira. Horrela ez bada, Bizkaiko Eskola Kirolaren Araudiaren Diziplina Araubidean xedatutakoa beteko da.

Federazioaren artxiboak kontsultatu ondoren, argi eta garbi geratu da [REDACTED] eta [REDACTED] jokalariek ez dutela federazioaren baimenik, ez baitute eskolara joateko adina.

Batzordeak ohiko bilera egin zuen eta jokozainaren aktan egiazkotasun presuntzioa antzematen zela eta araua hautsi duten jokalarien ordezkariak, klubak eta bere ordezkariak alegaziorik aurkeztu ez zutelako kontuan hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiko erregistroak kontsultatu ondoren, egitateak zigortu zituen eta ebazpena eman zuen adierazitako baldintzetan.

Busturia Kirol Taldeak, Batzordeak emandako epaitzaren kontra aurkeztutako errekurtsio idatzian, bi jokalariek lizentziarik ez dutela onartzen du eta haietako bat ez dela existitzen dio, jokozainak ez duelako behar bezala idatzi jokalaria bigarren abizena. Bi jokalariek aurreko partida guztietan parte hartu dutela aitortu du espresuki, egitate horiek ez zirelako salatzen, eta jokozainari bere funtzioak bete ez izana leporatu dio, ez zuelako bi jokolari horiek zerrendan sartzea ekidin. Klubak berak bi jokalariei emandako baimena eta [REDACTED] eta [REDACTED] jokalarien gurasoen emandako hainbat baimen aurkeztu ditu klubak.

Hori guztia dela bide, Batzordeak uste du "argi eta garbi" egiaztatuta geratu dela jokalariek ez dutela federazioaren baimenik eta beraz, egiaztatuta geratu da aipatutako bi jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu zirela 2016-01-16an Bizkaia ikastetxea Benjamin C eta Busturia Kirol Taldea B taldeen arteko partidari.

Ondorioz, Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordearen ustez, bidezkoa da Busturia Kirol Taldean ordezkariak aurkeztutako errekurtsoa ezestea eta Eskolako Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak 2016-01-19an emandako epaitza berretsi du, 2016-01-16an Bizkaia ikastetxea Benjamin C eta Busturia Kirol Taldea B taldeek jokatu zuten partidaren inguruan joko zainak egindako aktan zehazten diren gorabeheren inguruan emandakoa, eta erabaki du "*partida Busturia B taldearentzat galdutzat ematea, 1-0 emaitzarekin, eta sailkapenean puntu bat kentzea [REDACTED] eta [REDACTED] jokalaria zerrendan behar ez bezala sartu izanagatik, ez baitzuten eskolako kirolean parte hartzeko besteko adina (14.g) artikulua, 17.1J) artikuluari erreferentzia egiten diona*".

**Laugarrena.-** Errekurtsio-egilearen idatzian egindako alegazioak eta Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Batzordeak bere txostenean egindako kontsiderazioak azaldu ondoren, bi gauza argitu behar dira:

- a) Espedientean dauden dokumentuetatik eta bereziki Busturia Kirol Taldeak aurkeztutako errekurtsotik ondorioztatzen da aipatutako bi jokalaria [REDACTED] eta [REDACTED] direla.
- b) Uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola kiroleko lehiaketen diziplina araubideari buruzkoak, ERAKUNDEEN ARAU-HAUSTE OSO LARRIAK zeintzuk diren dio 14. artikuluan. Zehazki, G letran dio arau-hauste oso larria dela "*eskola-lizentziarik gabeko kirolariak jokalarien zerrendan sartzea*". 14. artikulua horrekin lotuta, Dekretu beraren 17.1 artikuluan batzordeak arau-hauste oso larriengatik aplika ditzakeen zehapenak ageri dira. Zehazki, 17.1 artikulua horretako I letran honako zehapen hau aipatzen da: "*egun bati edo proba bati baino gehiagori dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzea*". Horrenbestez, arau-hauste oso larrietarako J letrarik ez dagoenez, Batzordeak 17.1.J artikuluari

erreferentzia egiten dionean, zehapena arrazoitzeko emandako azalpenaren arabera, 17.1.I artikuluari egin nahi dio erreferentzia.

Kasu honi dagokionez, errekurtsioa ezestea bidezkoa dela uste dugu, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

2015eko martxoaren 9an Batzorde honek 41/2014 zenbakidun espedientearen inguruan hartutako erabakian aztertu zuen legez, eskola kiroleko lehiaketetarako arauak ez betetzearen inguruan, kasu honetan 2015-2016 ikasturterako eskolako futbolaren lehiaketan arautzen dituzten arauak ere ez dituzte bete; izan ere, jokalariek lizentziarik gabe (fitxarik gabe) jokatu zuten, ez baitzuten behar besteko adina.

ESKOLA KIROLAREN LEHIAKETETARAKO ARAUETAN ageri den "fitxak" atalak Bizkaiko Eskola Kiroleko Araudiaren Diziiplina Araubideari egiten dio erreferentzia aipatu dugun betebeharra betetzen ez den kasurako.

Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 28ko 141/2015 Foru Dekretuak, eskola kirolaren programak 2015-2016 denboraldian izango duen araudia eman duenak, 17. artikuluan dio irailaren 20ko 2578/1996 Foru Aginduan, Bizkaiko eskola kirol jokoetan aplikatu beharreko Diziiplina Araubidea onesten duen horretan, ageri den araudia aplikatuko dela.

Hala ere, zehapenen araubideari dagokionez, 2578/1996 Foru Aginduaren 16. artikulua Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailak 1985eko uztailaren 29an emandako Agindura garamatza, eskola kiroleko lehiaketen diziplinazko araubideari buruzkora. 2015eko martxoaren 9an hartutako erabakian ohartarazi zen legez, uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuaren xedapen indargabetzaileak, eskola kiroleko lehiaketen diziplinazko araubideari buruzkoarenak, espresuki indargabetu zuen 1985eko uztailaren 29an emandako Agindu hori.

Horri dagokionez, bere garaian esan zen legez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du diziplinazko araubidea eguneratu oraindik, aipatu dugun 391/2013 Dekretuan gai horren inguruan jasotako araudia ikusita, eta hori deigarria da.

Hain zuzen ere, kasu honetan ere Bizkaiko Futbol Federakundearen Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Lurralde Batzordeak, arau-haustea eta aplikatu dakioken zehapena zehazteko orduan, 391/2013 Dekretuan ezarritako diziplinazko araubidera jotzen duela ikus dezakegu. Zentzu horretan eta aurreratu zen moduan, kontuan hartu behar da dekretu horren 5. artikulua dioena: *Eskola-kiroleko lehiaketen diziplinazko araubidearen oinarri dira ekainaren 11ko 14/1998 Legea, Euskadiko kirolarena, eta dekretu hau, bai eta foru erakundearen araudia, dekretu hau garatzen duena, eta erakunde antolatzaileek onetsitako diziplinazko xedapenak ere. Haietan zehaztu gabeko alderdietan, dagokion kirol modalitatearen federazioak xedatutakoa aplikatuko da*.

Kasu honetan, errekurtsioa aurkeztu duen klubak ez du araudia bete. Zehazki, bi jokalariek fitxarik ez izatea 391/2013 Dekretuaren 14. G) artikuluan deskribatutako kasuaren baitan sartzen da, erakundearen arau-hauste oso larri modura, eskola-lizentziarik gabeko kirolariak jokalarien zerrendan sartu zirelako. Arau-hauste oso larri horri 17.1.I artikuluan bildutako zehapena aplikatu dakiok, egun bati edo proba bati baino gehiagori dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzean datzana.

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

## **ERABAKI DU**

1.- Busturia Kirol Taldeak aurkeztutako errekurtsioa ezestea. 2016ko urtarrilaren 19an Eskola Futboleko Kirol Lehiaketarako eta Diziplinarako Batzordeak Bizkaia ikastetxea Benjamin C eta Busturia Kirol Taldea Benjamin B taldeen arteko partidaren izandako gorabeheren harira hartutako erabakiaren kontra aurkeztu zen errekurtsio hori.



2.- Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 8a

JOSÉ LUIS AGUIRRE ARRATIBEL

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea